

ORIOKO

EUSKAL ALDIZKARIA

KarKara

20. zenbakia, Don. 1993ko apirila

20-A




Elkarrizketa:

Gozategi anai-arrebak

Erreportaia:

Orietarron Hizkuntzak



KULTUR ASTEA-93

MAIATZAK 17-22

HAURREI BEGIRA:

- . Bideo, diapositiba eta txotxongilo emanaldiak, astean zehar.
- . Futbito, dama, partxis, xake eta mus txapelketak, astean zehar.
- . Asteazken gauean: izarren ikusketa, Iturriotik, 8. mailakoentzat, Ramon Nazabal-ek zuzendua
- . Ostiral arratsaldean: . Haur jolasak, Ikastolako patioan.
. Erraldoi eta buruhandien kalejira.
. Kiki, Koko eta Moko pailazoak, 5 1/2etan, herriko enparantzan.

GURASOEI BEGIRA:

- . Asteartea, 18: Mendirako espedizioa, diapositiba bidez. Itsas Etxean, iluntzeko 7 1/2etan.
- . Osteguna, 20: Guraso eta irakasleen elkarlana heziketan Felix Etxeberria eta Pello Aierbek Itsas Etxean, gaueko 9etan
- . Ostirala, 21: 6., 7. eta 8. mailako haurren antzerkiak eta Txantxan-gorri koruaren kantaldia. Bikaminotako ikastetxean, gaueko 9etan.
- . Larunbata, 22: . Eskolaurreko eta Erdi Zikloko haurren antzerki eta kantaldiak, herriko frontoian, goizeko 11etan.
. Haurren eskulanen erakusketa, arratsaldeko 5etatik 7etara.
. Pastoral estampa
. Bertso jaialdia, gaueko 10etan, herriko frontoian:
Bertsolariak:
Lizaso, S.
Egaña
Lopategi, J.
Euskitze
Sarasua, J.
Olaso
Gai-jartzailea: Pello Urretabizkaia



ORIOKO HERRI IKASTOLA

AURKIBIDEA

KarKara
aldizkaria

Lege-gordailua:

SS 346/90

ISSN 1132-1105

Tirada: 800 ale

Herriko Plaza, 1

20810 ORIO

Tfnoa: 83 15 27

Erredakzio-taldea:

Marisa Arruabarrena

Miren Etxebarria

Jabier Galton

Ana G. de Txabarri

Ana Iturain

Iñaki Iturain

Nere Manterola

Jabier Zabaleta

Kolaboratzaileak:

Patxi Oliden

Marijo Urkizu

Pat Cowie

Azken orrialdeko

marrazkia:

Daniel Bastos

Argazkiak:

Ana G. de Txabarri

Inprimategia:

Bizker (Usurbil)

- 5** Herrian galdezka: Zer egiten dute oriotarrek Aste Santuan?
- 6** Herriko Kontuak
- 10** Kirolak
- 12** Erreportaia: Oriotarron hizkuntzak
- 14** Iritzia: Hizkuntza bat ezagutu, kultura bat ezagutu Marijo Urkizu Eleaniztasuna. Pat Cowie
- 15** Bertsoak: Orio, "Ijito-erria". Don Fabian Loidi
- 16** Elkarrizketa: Trikitilariak dira beste askoren tankeran: Gozategi anai-arrebak
- 18** Denetik piska bat
- 21** Kolaborazioa: Garai bateko garraoiak (I). Patxi Oliden
- 22** Azkena



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria

PUBLIZITATEA

KarKara

Herriko Plaza, 1
20810 ORIO
Tfnoa: 83 15 27

**1993ko
publizitate-prezioak**

Modulo bat 1.500 PTA
Bi modulo 3.000 PTA
Hiru modulo 4.500 PTA
Lau modulo 6.000 PTA
Sei modulo 9.000 PTA
Orrialde erdia 13.500 PTA
Orrialde osoa 27.000 PTA

☞ **Prezio hauek zenbaki
baterako balio dute. Urtean
hamar zenbaki argitaratuko
ditugunez, zenbaki
gurtietan beren publizitatea
egin nahi dutenek % 10eko
deskontua izango dute
prezio hauen gainean.**

Joseba manterola

Proiektuak eta erreformak,
etxebizitzak eta lokal
komertzialak (boutique-ak,
okindegiak, arraindegiak...)

JM

Alta Lertxundi 22, 3. esk.
Telefonoa: 83 53 53

EROSLE

AUTOZERBITZUA



ORRAZKERAK

AITA LERTXUNDI, 22
TFNOA. 83 12 61

DORRONSORO

Janaridenda

ABESLARI, 3

TELEFONOA 83 09 37

ZUMINTZA



• *Ileapaindegia* • *Estetika*
• *Depilazioa* • *Sauna*



Tfnoa: 83 17 56

HARAGIA GUSTORA JAN NAHI
BADUZU EROS EZAZU...

Kepa Loidi

harategia urdaitegian

Pelotari.1 Tfnoa 83 25 65

**Bertan
egindako
opil eta ogiak**



OPIL OKINDEGIA

Frontoi ondoan
Tfnoa: 83 01 89

HERRIAN GALDEZKA

Zer egiten dute oriotarrek Aste Santuan?

Aste Santuan ia jende guziak izaten du jai, egun bakar batzuk badira ere... Batzuentzat, Aste Santua elizara joateko garaia da, besteentzat opor garaia... Baina zer egiten dute oriotarrek Aste Santuan?



Begoña Sarasua
40 urte

Aste Santuan, ez naiz inora aterako, igual ohiturarengatik izango da, eta, ez zait gehiegi gustatzen. Behin ere ez naiz atera Aste Santuan kanpora, beno behin baina orduan ere prozesioa ikustera.



Miren Zaldúa
18 urte

Ez dut inora joan behar, gero azterketak dator eta, zerbait ikasi egin beharko da... "a la aventura" ateratzea gustatuko litzaidake, kanpinarekin, mendira edo... ateratzeko garaietan, ikasketak oztopo direla uste dut.

Patxi Manzísidor
18 urte

Seguru aski aterako gara; Lekeitio aldera kanpinera edo... oztopak, etxe aldetik ez dagoela permiso handiegirik, eta lanean ez dakidala zenbat egun ditudan libre...



Juan Jose Agirre
40 urte

Asmoa badaukat, baina lanaren gorabehera dago hor... Madrilera Sierrara joango gara, anaiaren apartamentura... nobedadea delako gustatzen zaigu ateratzea.



RAMIRO

ARGAZKIAK

Eusko Gudari, 9

☎ 83 10 48

KOLON TXIKI

Herriko plaza, 4

☎ 83 00 44 13 20 26

Gu²BI

sukaideak
bainugelak
logelak



Ballenetas, 10. ifnoa: 47 12 01 Donostia
Estropalari, 10. ifnoa: 83 34 54 Orre

HERRIKO KONTUAK



Jende ugari bildu zen Igor Manterola "Bull"-en omenezko jaialdian

Xurrukurru Kultur Taldeak, Igor Manterola "Bull"en omenez pasaden martxoaren 13an antolatu zuen jaialdian 1.500 pertsona inguru bildu ziren herriko Udal Pilotalekuan. Antolatzaileek adierazi zuten, guztiz arrakastatsua izan zen jaialdia.

Giro honen lekuko gisa, hona hemen Eusobio Lasartek abestutako bertsoa:

Geroko giroa nik ez dakit / zertzuk duan eragingo, / Jon Sarasuak esan bezala / laister dezute jakingo, / arrazoi xeibre bat hemendik/golpetikan dut emango, / Patxi Errekondon konejuak 'e / gour ez du lorik egingo. (bis)

Jaialdiak bost ordu iraun zuen eta tartean etenaldi bat egin zen. Geldiune honetan, elkarre, talde eta lagunek, Igor Manterola gaztearen familiari oroigarri ezberdinak eskeini zizkiden.

Arrantzaleek arazo larriak dituzte aurtengo antxoaren kanpainan

Aurtengo antxoaren kanpaina hasi zenean, Orioko arrantzaleak nahiko pozik zeuden egiten ari ziren kapturekin. Azkenaldian, berriz, arazo larria bihurtu zaie harrapatutako antxoa saltzea.

Kofradiako Klemente Ibargoienek eman digun informazioaren arabera, kanpotik kontrolik gabe ari da sartzen antxoa, Argentina eta Txiletik antxoa handia eta Frantziatik antxoa txikia, eta hori dela eta, prezioek behera egin dute izugarri. Antxoa 50 eta 100 PTA arteko prezioan ari da saltzen, Kofradiaren esanetan prezio normala 150 eta 180 PTA artekoa izan behar lukeenean.

Arazoa benetan larria da eta lerro hauek idazten ditugun momentuan arrantzaleek greba egiteko posibilitatea ere ari dira aztertzen.



Gazteen Azpibatordea sortu da Orion

Martxoaren 22an, "Orioko gazteak eta euskara" galaren inguruan bilera izan zen Udaletxean. Bertan, Udaleko Euskara Batzordeak, Gazteen Azpibatordea sortzeko proposamena egin zuen.

Gazteen Azpibatordea, Euskara Batzordearen atal bat izango da, eta honen funtzioa, Euskara Batzordeak gazteen artean euskararen erabilera promozionatzeko egingo duen lanaren nondik-norakoa zehaztea eta prozesu horren gidari izatea da.

Bosniako egoerari buruzko bideo emanaldia

Orioko Emakume Taldeak antolatuta, Bosniako egoerari buruzko bideo emanaldi bat izan zen martxoaren 10ean udaletxeako Areto Nagusian. Bideoa Sarajevo sufritzen ari den setioari buruzkoa izan zen.

Bideo emanaldiaren ostean, solasaldia izan zen eta bertara bildu ziren hogelata hamarren bat oriotarrek Bosniako egoera hobeto ezagutzeko aukera izan zuten.

Azalpenak ematen SOS Balkanes elkarteak kide bat eta Shella Dizdarevich musulman bosniarra izan ziren.



Erakusketa Parbulario zaharrean

Juan Zaraguetako ikasleen buztinezko eskulanak ikusgai egon ziren San Jose zubiko asteburuan, Iturbide kaleko parbulario zaharrean.

Eskolako Guraso Elkarteak antolatutako erakusketa honetan, adin guztietako haurren lanak ikusi ahal izan ziren, denera berrehun baino gehiago osatuz. Honetaz gain, bertara hurbildu zirenek lan hauen sormen-prozesua ezagutzeko aukera izan zuten jarrita zegoen bideo baten bidez. Erakusketa honekin amaiera egokia eman nahi zitzaion otsailean zehar Aiako San Pedroko zeramika tailerreko partaidea den Arantxa Santamariaren aurdurapean jorratu den ikastaroari.

Han zeuden guraso eta irakasleek ziotenez, ikastaroa guztiz arrakastatsua izan zen, eta datorren kurtsorako teknika sakontzeko beste ikastaroa antolatuko zela adierazi zuten. Haurrei dagokienez, bideoa ikusi besterik ez zen behar ulertzeko primeran pasa zutela buztina manipulatu.

Orioko gaixoak peregrinazioan joango dira aurtenera Lourdesera

Urtetik urtera errepikatzen den ohitura bati segida emanez, aurtengoan ere erromesaldia antolatu da Orion Frantziako Lourdes hirira.

Urtero bezala, erromesaldi honetan parte hartuko dute Orioko gaixoak eta baita horiek laguntzera joaten diren boluntarioek ere; erizainak, kamilleroak, eta bar.

Aurtengo peregrinazioa maiatzaren 21, 22, 23 eta 24ean izango da, ostiralean joan eta astelehena bitarte, beraz.

Izena emateko interesadunek Leunda altzaridendara jo dezakete edo, bestela, 830364 telefonora hots egin ahal izango da, asteartearen 13a, asteartearen 13a, asteartearen 13a, baino lehen.

Korrika ez zen, azkenean, Oriotik pasa

Aurreko alean Korrika Oriotik pasako zela esan genizuen orri hauetara. Barkamena eskatu behar dizuegu, gure hanka sartzeagatik, zeren eta, dakizueenez, aurtengo Korrikaren ibilbidea ez balta Oriotik pasatu. Lotsa-lotsa eginda gaude hanka sartze hori dela eta.

HERRIKO KONTUAK



Aste Santuko elizkizunen ordutegia

Apirilaren 4ean, igandea, Jaunaren Nekaldiko Erramu egunean, goizeko 10,30etan erramu be-deinkapena eta eukaristia izango da.

Apirilaren 6an, Astearte Santua, elkarteko penitentzi ospakizuna gaueko 9etan, gaztelaraz.

Apirilaren 7an, Asteazken Santua, elkarteko penitentzi ospakizuna, gaueko 9etan, euskaraz.

Apirilaren 8an, Ostegun Santua, goizeko zortzietatik hamarretara, banakako aitortzak. Arratsalde, 6etan meza, 7etan, Meza Nagusia eta 10etan ordu santua.

Apirilaren 9an, Ostiral Santua, goizaldeko 5etan, San Martinera gurutz bidea. Goizeko 10etan, gurutz bidea gaztelaraz. Goizeko 11tan, gurutz bidea euskaraz, eta arratsaldeko 5,30etan, Jaunaren Nekaldi ospakizuna eta elizbira.

Apirilaren 10ean, Larunbata Santua, gaueko 9,30etan Pazko bijilia.

Apirilaren 11n, Pazko eguna, Meza Nagusia 10,30etan.

Orioko populazioaren gorabeherak azken urteotan


1993. urtearen hasieran 4.298 biztanle ginen Orion. Honek adierazten digu gurre herriak mantentzen duela, gutxi gorabehera, bere populazioa. Azken urte parean, gainera, oso gutxi bada ere, goraka egin du piska bat.

Azken zortzi urteetan, hau da 1984ean kontatzen hasi eta gaurdaino, la parekatuak izan dira jaioetak eta hildakoak.

1986 eta 92a izan dira populazio hazkunde handieneko urteak. Bi urte horietan jaioetza kopurua nahiko altua izan zen. 85ean, berriz, populazioa jeitsi egin zen (38 jaioetako eta 42 hildako).

Datu hauek ez dira, hala ere, guztiz zehatzak, ez baitugu kanpora joan edota kanpotik etorri direnen berririk urte guzti horietan, bakarrik hildako eta jaioetakoak.

Guzti hori hobeto ikusten da ondoren ematen dugun grafikoan.



ERRUSTA
taberna

Kriston bokadillok!!

Koasta Lasaitasuna
eta
Taberna giro ona

Parte hartze handia izango da harrijasotze sari nagusian

Apirilaren 4erako Kirol Antolakuntzarako Komiteak antolatu duen «Euskadiko Lehen Sari Nagusia, Luis Atxega Trofeoa» harrijasotze-txapelketan parte hartzeko hamalau harrijasotzailek eman dute izena, antolatzaileen prebisioak gaituz.

Txapelketa, aurreko alean iragarri genuenez, arratsaldeko bostetan izango da herriko frontoian eta 100 Kg-ko harri kubikoarekin jokatu da, bost minutuko bi txandatan. Sariak honako hauek izango dira: Lehendabizikoak, 150.000 PTA, trofeoa eta txapela; bigarrenak, 125.000 PTA eta trofeoa; hirugarrenak, 100.000 PTA eta trofeoa; laugarrenak, 75.000 PTA; bostgarrenak, 50.000 PTA eta seigarrenak, 35.000 PTA.

Luis Atxega, pulsolari eta harrijasotzaile

Axentxio Txanka bertsolariak Luis Atxega oriotarraren omenez egindako bertso batzuk ekarri ditugu hona.

Luis Atxega karga jasotzen
beti da gustagarriya,
jokatu duen toki danetan
egin du marka aundiya;
Berreun kiloz betik zegola
Amézetako arriya,
amar minutun amaika aldiz
dauka espaldan jarriya.

Milla urte ta bederatzireun
berrogei ta amazplan,
bost milla peza premiyaekin
jarri zizkaten mayian;
berreun kiloko arriya berriz
plazaren erdin lurrian,
marka guziyak ausi zifuzun
Oriyon danen aurrian.

Bi txandetan 45 jasoaldi baino gehiago egiten duten gainontzeko parte hartzaile guztiek ere, 25.000 PTAko saria izango dute.

Sariak inportanteak dira eta hori da, segunuenik, hainbeste lagun apuntatzearen arrazoia.

Izena eman duten harrijasotzaileak honako hauek dira: Gorka Zendagortagalarta, "Sarri"; Axier Arakistain; Jose Ramon Iruretagolena, "Izeta"; Ander Zenarnuzabeltia, "Poti"; Jabier Arriola; Jesus Mari Oartzabal, "Aranzeta"; Jose Antonio Gisasola, "Zelai"; F. Jabier Valenciano, "Zelailuze"; Jose Luis Ibariuzea, "Kamizerito"; Isaak Martinez, "Tigre de Salinas"; F. Zahino; Fernando Artaza eta Gonzalo Rodriguez.



URBAZTER

Aseguru eta bidai agentzia

San Nikolas kalea, 8

☎ 13 33 14

GABON

Taberna-Kafetegia

Telefona: 83 06 09



lazko arrakasten ondoren, arraunlariak lanean hasi dira berriro

Arraunlariak sartu dira bete-betean estropada sasoian

Bateletan, jokatu diren hiru estropadetan bigarren postuan geratu da A unitzia eta B-k bi laugarren eta hirugarren postu bat egin ditu. Emaitzak oso onak omen dira kontutan hartuta batela oraindik antolatu gabe dagoela eta entrenamendu gisa besterik ez direla aritu. Hasi berria den liga honi ez zato garrantzia handia ematen, benetako erronka txapelketarena balta.

Banko mobileko denboraldia liga moduan antolatu da aurten. Lehenengo estropada Legution izan zen, bigarrena Astilleron eta hirugarrena martxoaren 27an Orion. Astilleroko egunean gainera torfeo berezi bat zegoen lehian eta Orio eta Santurtzi puntuz berdindurik iritsi ziren azkenean, baina trofeoa Santurtzikoak jaso zuten beraien irabazi bai zuten zortzikoen estropadan. Orion jokaturako estropadan, berriz, herriko bi zortzikoak beste guztien aurretik ailegatu ziren.

Hemeretzi taldek parte hartzen dute futbito txapelketan

Dagoeneko hasia da, Xurumurru kultur taldeak antolatutako futbito txapelketa. Bertan, hemeretzi taldek parte hartzen dute.

Aipatzekoa da, talde hauetako bat alarra dela. Lehen aldia da, talde kanpotar batek parte hartzen duela herriko futbito txapelketa batean.

Zilarrezko domina irabazi zuten Orioko bi judoek Euskadiko Txapelketan

Ibai Peñak eta Iker Ostolaza oriotarrek zilarrezko dominak irabazi zituzten, nork bere kategorian, Judoko Euskadiko Txapelketan. Finalak Andoainen eta Portugaleten jokatu ziren

ARGI-GAIK

elektrizitatea

argi halogenoak

iturbide, 11

Carmen

ARRAINDEGIA

tfnoak: 83 05 37 83 33 71

ALT XERRI

Jatetxea

Telefona: 83 07 62

Orio's Shop

EUSKO GUDARI, 17 TELEFONOA: 83 12 44

- * Udaberrirako jantziak
- * Aukera-aukerako moda gaztea

Mari Jose Eizagirre, Orioko futbolariarekin solasean

Kirola orokorrean du gustoko, baina garai batean, zerbait egin nahi zuela eta, futbolean hasi zen.

1987. urtean sortu zen lehen aldiz emakume futbol taldea Orion, eta Mari Jose talde hartako jokalarietako bat zen. Baina, badirudi, aurtengo tenpora da azkenengoa izango dela emakume honentzat nahiz eta urtero gauza bera pentsatu.



Karkara.- Zer da zuretzat futbola?

Mari Jose.- Garai batean futbola asko bizitzen nuen, eta gainera oso lagungarria zen niretzat. Gaur egun, lasaiago hartzen dut, bai garaipea eta bai porrota.

K.- Nola zoazte ligan?

M.J.- Liga duela egun gutxi bukatu zen, eta hamailka ekipotatik zazpigarrenak geratu gara. Orain, Gipuzkoako Kopa ari gara jokatzen eta klasifikatzeko esperantza badugu.

K.- Zein da duzuen arazorik larriena?

M.J.- Orioko neska gutxi dugu taldean. Badirudi ez dutela konprometitu nahi. Futbitoko txapelketaren bat antolatzen denean, parte hartzen dute, baina entrenamentuak tartean daudenean... Gainera, guraso askok ez du onartzen beren alabek futbola jokatzerik.

Bestalde, baten batzuk ez gaituzte begi onez ikusten, agian emaitza oso onak lortzen ez ditugulako izango da, ez dakit.

K.- Nolako entrenamentuak egiten dituzue, eta zein da zuen entrenatzailea?

M.J.- Astean bi egunetan izaten ditugu entrenamentuak, gutxi gorabehera orduterdikoak. Arriketa ezberdinak egiten ditugu: korrika, baloiarekin, jokaldiak...

Gure entrenamentuak Maite Redondok zuzentzen ditu, baina partiduetarako Pedro Fernandezek bere laguntza luzatzen digu, Maite ere jokalaria baita, eta partiduetan parte hartu egiten baitu.

K.- Nolakoa da jendearen erantzuna?

M.J.- Hobeia izan zitekeen, baina orokorrean ona da. Animatzen gaituzte, beste batzutan parrere ere egiten dute, denetarik dago, leku guztietan bezala.

K.- Zein izan da garaipenik garrantzitsuenak?

M.J.- 1989. urtean Gipuzkoako Kopa irabazi genuen, eta futbol ligaren hirugarrenak geratu ginen. Hauexek izan dira lortutako garaipenik garrantzitsuenak.

AXUN

JANARIDENDA

Tfnoa: 83-59-02

IL GELATO

Etxeko helatuak
eta kruasanak

San Nikolas 17 TFNOA 131747

URANGA BURDINDEGIA

EUSKO GUDARI 7
TFNOA 831236

Oriotarron hizkuntzak

Orio herri elebiduna da, ia oriotar guztiak elebidunak bait gara. Hau da, gure herriko ia jende guztiak bi hizkuntza ezagutzen ditu gutxienez, euskera eta gaztelera. Orio euskeraz eta "kastellanoz" bizi da aldi berean.

Iñaki Iturain

Hala ere bada jendea Orion euskeraz ez dakiena; 1986ko erroldako datuen arabera, urte horretan Orion bizi ziren 4.191 biztanleetatik laurhun baino gehiago ziren euskeraz ez zekitenak, ia denak etorkinak edo hauen seme-alabak. Beraz %10 inguru zen une horretan erdaldun hutsa Orion. Gaur egun egoera antzekoa izango da noski. Baina badira, baita ere, euskera besterik ezagutzen ez dutenak. Hauetako batzuk, oso bakanak, zenbait baserriko aiton-amonak, bixitza osoan euskera hutsez bizi izan direnak eta erdera, ulertu ere, nekez ulertzen dutenak. Gainontzekoak haurrak dira, 6-7 urte bitarteko haur batzuk, oraindik erderarik ikasi ez dutenak.

Horiek dira Orion hizkuntza bakarrik ezagutzen dutenak. Gainontzeko

guztiok bi hizkuntza gutxienez ezagutzen ditugu. Gainera oinarriak jarrita daude, epe baten barruan, Orio gizarte guztiz elebiduna izateko, izan ere herriko bi eskoletan, ikastolan eta Zaraguetan, datorren urtetik aurrera, haur guzti guztiak irakaskuntzako D ereduaren ikasiko dute, euskera hutsez alegia, eta gauza jakina da, gerora gaztelera ikasteko ez dutela inolako eragozpenik izaten.

Haurren artean ezezik helduenean ere, herria euskalduntzen ari da, oso mantsu bada ere, eta horretan ari dira hiru irakasle herriko Udai Euskaltegira hurbiltzen diren 54 ikasleekin. Hauekin sei talde osatu dituzte sekula baino gehiago, bi euskalduntzeko, bi alfabetatzeko eta

beste bi E.G.A. mailan. Lehen berriz, itsasoa izan zen euskaltegirik onena kanpotik etorritako erdaldun askorentzat..

Hirugarren hizkuntza

Gaur egun ez dira asko Orion hirugarren hizkuntza bat menperatzen dutenak. Baina gero eta gehiago dira horretan ari diren gazteak, eta alde handiz ingelesa da gehienek aukeratu dutena.

Orion badira 12 bat famili beren haurrak Dorostako "English School" (eskola inglesa) batera bidaltzen dituztenak. Jose Mari Indo, aita baten hitzetan "Ingelesa da gaur egun ekonomia eta negozioen munduan zabaldua da goena eta komeni da haurrak txiki-txikitatik ikasten joatea". Baina herriko eskoletako ume guztiak ere ikasten ari dira ingelesa, behin hirugarren mailatik aurrera.

Gero eta oriotar gehiago saiatzen da ingelesa ikasten

Ikastolan orain dela hamar urte hasi zen Nekane Larrañaga ingelesa erakusten, eta gaur egun horretan dihardu txikiel astean ordubetez eta 5. mailatik aurrera 3 orduz, "euskeraz aurreneko egunean besterik ez diet hitz egiten, gainontzean dena ingelesez, komunera joan nahi badute ere ingelesez eskatu behar didate, bestela badakite..., kantu eta jolas asko egiten dugu klasean eta oso ondo pasatzeaz gain, eskola uzten dutenerako maila polita lortzen dute". Ba omen dira batzuk uda garaian Ingalaterra aldera jotzen dutenak bere maila hobetzeraz.

Zaragueta eskolan berriz, Juan Manuel Sartal pasaitarra ahalegintzen da talde bakoitzeko astean hiru orduz ingelesa erakusten, aurtengo 5. mailatik aurrera, eta datorren urtetik aurrera 3. mailatik gorakoekin, "Oso ludikoa da umeentzat, eta gustora



ari dira oso, haurrentzako ikasgai gustokoenak soinketa eta inglesa dira". Iaz "A Tourist Guide to Orto" turistentzako gidaliburuska osatu zuten hurrek ingelesez, Orioko toki, erakunde, elkarte eta jaien berri ematen zuena, eta oso motibatu aritu ziren lanean".

Ez ikastolan ez Zaraguetan ez da frantsesa erakusten. Lehen bai, baina orain dela 10-12 urte aldaketa gertatu zen, frantsesa erakusteari uztearekin batera hasi ziren inglesa ematen. Demetrio Esnaola, ikastolan frantsesa erakusten aritu zenak nolabaiteko kezka agerzen du hau dela eta, "Frantzia hain gertu daukagula, nik uste dut frantsesa ere ikasi egin beharko luketela". Baina oraingoz ez daukate ezer erabakita horren alde, nahiz eta zenbait irakasleren artean hitz egin omen duten horretaz.

Eskoletan bezeia kalean ere inglesarekiko joera hori nagusitu egin da. Garai batean, duela 20 bat urte, latina ere erakusten zuen Don Antonino Agirre apaizak. Frantsesa berriz duela 7 urte arte aritu zen erakusten Marisa Aranburu, Jose Xapatero zenaren alaba, bere etxean herriko zenbait gaztebori, "eskolan aprobatzeko bakarrik etortzen ziren eta ez zuten benetan ikasten", gainera moto-



Aitak euskeraz egiten die, amak ingelesez

doa ere ez zen egokiena, orain mintzamenari garrantzi handiagoa emango nioke".

Ingles eskolak

Gaur egun bi ingles-ekola ditugu Orton. Bata Pat Cowie eskoziar euskaldunarena eta bestea Elisa Manterola oriotarra. Patenean 70 bat ikasle ari dira, gehienak 14 urtetik beherakoak, %60, baina helduak ere bai, %30 bat, eta 15 bat sartzeko zain, tokirik ez dela eta.

Patek dioenez badira ama batzuk kezkatuta daudenak, haurrentzat gehiegizkoa ote den hainbeste hizkuntza ikastea, ez ote diren guztiz nahastuko alegia. Bere ustez ez dago inolako arrazotrik kezkatzeko, zenbat eta hizkuntza gehiago jakin orduan eta errezago ikasten omen da beste bat ere, "Euskeraz dakitenek hobeto ikasten dute ahozkatzen erdaldun hutsek baino".

Elisa Manterolak berriz, 50 bat ikasle ditu, asteen bi orduz ematen die, eta bere ustez oso aberasgarria da hizkuntzak ikastea. Bera 14 urte zituela Ingalaterrara joan zen inglesa lantzeraz eta gero Donostian ingles filologia ikasi zuen, horretaz gain alemanez ere ondo egiten du eta italieraz ere bai zerbait.

Kasu bereziak

Nekane Larrañaga eta Jose Ignazio Ostolaza "Xalbardin"en kasua berezi samarra da, izan ere Nekane ikastolako ingles irakaslea bera, ingelesez hitz egin izan die beti jaso zirenetik, Aloña (13 urte), Oihana (9) eta Aitor (4) bere alaba- semeek, eta egiten die gaur egun ere, aitak beti euskeraz egiten dien bitartean. Egindako aukerari hori medio, hiru haurrek badakite bai euskeraz, bai gaztekeraz, baita ingelesez ere. Arazo bat edo beste ere izan dute beren inguruan, Nekaneen hitzetan

"elitista ere deitu zidan behin batek, baina ni ez naiz damutzen, uste dut hurrek ez dutela arazorik izan aukera honengatik eta beren heziketa aberatsagoa dela".

Marijo Urkizu, Olluane-ko neska, izango da segurasko hizkuntzak ikaste-ko zaletasunik handiena erakutsi duen oriotarra.

Gaur egun Alemanian bizi da, alemana ikastera joanda. Lana, gaztekeraz erakusten egiten du.

Lehen, urteak eman zituen Ingalaterran ingles ikasten, gero hizkuntzarako erreztasun horrek lagunduta, herriko kanpinan egin zuen lan zenbait urtez.

Oxford-eko arraunlariak etorri zirenean ere, Orioko arraunlarietkin neurtzera, berak egin zituen bitarteko edo interprete lanak. Baina, aipatu ditugun hizkuntzez gain, frantsesez eta italieraz ere moldatzen da Marijo.



Marijo Urkizu
Irakaslea

Hizkuntza bat ezagutu, kultura bat ezagutu

Nik beste hizkuntza bat —euskaraz eta gaztelaniaz aparte— ikasten hasteko izan nuen arrazoiak lena izan zen. Lan hobea edo «idealegoa» aurkitzeko asmotan hasi nintzen ikasten. Hori izan zen behintzat arrazoi «ofiziala». Baina bene-benetan, filma, liburu eta musikaren bitartez piztu zen neregara halako gogoak ingelesez ikasteko. Horregatik, lehenbiziko aukeran, Irigalaterrara joan nintzen denboraldi bat pasatzera.

Esperientzia oso aberasgarria izan zen nerretzat. Lehenbizi, hizkuntza ikasi, gero jende desberdina ezagutu eta, horren bitartez, beste kultura bat. Harrezkero, ingelesari esker, ez dut inoiz lan faltarik ezagutu, beraz, nere helburu «ofiziala» bete dut.

Orain dela urte batzuk alemaniera ikasten hasi nintzen. Hori, batez ere, «hobby» bat bezala izan zen. Garai hartan aspertu samarririk nengibilen eta hizkuntza hori ikasten hasi nintzen, beste batzuek kirola edo beste ikastaroren bat egiten duten bezalaxe. Oso interesga-

ria iruditzen zait hizkuntza bat ikastea ematen den prozesoa.

Alemanian denboralditxo bat ere pasa nuen. Hizkuntza bere herrian bertan ikasteari oso garrantzia handia ematen diot, interesatzen zaidana ez baita bakarrik hizkuntza ikastea, baizik eta bertako jendea eta bere ohiturak ezagutzea.

Beste herri batean bizi behar duzunean, guztiz beharrezkoa da nerretzat herri horren hizkuntza ezagutzea eta mintzatzea. Bestela, nola ulertu herri horren bizimodua, mentalitatea edo ohiturak? Hizkuntza bat ikastea kultura bat hobeto ezagutzea da.

Ni, orain, Alemanian bizi naiz eta askoz ere errezagoa egiten zait hemen ondo egotea alemanieraz hitz egitean.

Bestalde, hizkuntzaren bidez gure herria eta kultura ezagutzera eman diezakeket besteei. Askotan, Euskal Herriko «ambasadore» sentitzen naiz, lagun, ezagun eta inguruko jendearekin gure herriaz hitz egitean.

Eleaniztasuna



Pat Cowie
Irakaslea

Euskalduna al da bakurrarekin soil solilik hitz egiten duena? Astean hirutan ingelesez mintzatzen dena, ingelesduna ote? Ni neu, artikulotxo hau idazten ari naizena, euskalduna al naiz? Ba bai, neurri batean baietz dertzot. Zerbait komunikatzeko gauza bagara eta hori hizkuntza baten bidez gauzatzen badugu, ele horren jabea bihurtzen gara eta denboraren poderioz beraz elebakarrak, elebidunak, edo eleaniztunak.

Arna hizkuntza alde batera utzirik, zerik bultzatzen gaitu hizkuntza arrotzak ikastera? Teorikoki kultura ezberdinak ezagutu eta hobeto ulertzea bada ere, praktikan, aldiz, zeharo bestelakoa izaten da. Orioko jendearen artean gehien aipatzen diren arrazoiak oporrak hobeto pasatzeko bidea edota «hobby» aberasgarria dela dira.

Orietarren iritzian ingelesez jakiteak garrantzi handia du batipat bidaltzeko mementuan. Inglesez menperatzeak, hain zuzen ere, zerikusi handia du oporretara joateko ga-

ratari. Motza geratzen gara askotan gurea ez den herrietan, eta ondo iritziala ez, oinarriko komunikabidea ingelesez da toki gehienetan. Ikasten duen jendearen asmoa ez da, kasu gehienetan behintzat, Erresuma Batua edo ingelesez hitz egiten den tokietara joatea. Beste edozein lekutan ingelesez da elkarren komunikabidea, hau da, ingelesez baliatuz beteko dute beraien komunikatu beharra.

Nire eskarmentuak erakutsi didanez, eta kulturak duen garrantziari ezer kendu gabe, aitortu behar dut ikusi dudana eleaniztasuna lortzeko interesa, oro har, Orion gertatzen den bezala, maila praktikoan kokatu dela eta ez hainbeste kulturalen.

Erbesteko hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna nolabait aurrerapausua da norberarentzat. Kultura eskura dugu bai lan tresna bezala edo baita «hobby» modura ere; euskaldunak elebiduna zein eleaniztuna izateko aukera du. «Ez da ahuntzaren gaurdiko ezula»

BERTSOAK

Orio "Ijito-Erria"

Orietarroi Ijitoak deitu ohi digute, eta zergatik ote den galdetuta ez bide dugu jakin erantzuten, seguru behintzat, gure nortasunagatik ote zen, estropadetan gertatutako gorabehera batzuegatik edota ijitoak beren etengabeko joan etorrietan gure herria zutelako pausaleku eta aterpe. Fabian Loidi, bertsolari eta apaiz oriotarra zenak egindako bertso hauen arabera azken arrazoi horri zor diogu oriotarrok daukagun goitizen kolektiboa.

Don Fabianek esaten digu baita ere, harro egoteko modukoa dela gure arbasoek ijitoei eta kanpotarrei orohar egindako harrera ona. Gaur egun, xenofobia, arrazismoa bazterkeria indartzen ari diren garaian, ona izan daiteke bertso hauen bidez gogoraraztea oriotarrok ez dugula arazorik izan beste arrazatako jendearekin.

Bizkaia, Burgos eta
Santander artean
auzo txiki bat dago
mugarri antzean,
Karrantza'ko bailara
zabal ederrean,
Aldeacueva izen
leizak emanean.

Ango apaiz nintzala,
erbesteratua,
adlerazi nai det
neri gertatua:
Mutiko bateek ziran
luzatu eskua,
eskean zetorrela,
oso beartua.

Alta kartzelan zeukan,
ama galxotua,
lurpilla puskaturik,
geldian karnua.
-Nungoa zera, txiki...?
-Ni naiz ijitua,
baifia Orio'n jalo
ta batalatua

Oilioak errun dula,
mattea du kota.
Orio'ko sarreran
Txanka'ko errota,
inguruan aterpe
goxoa dago ta,
jalo nai duanari
ezin zalo bota.

Etxe gabe diranak,
arrunt ibilkari,
estalpe billa datoz
erdi-min dunari.
Alaxe jalo dira
ijito ugari,
eskerrak izan duten
arrera osari.

Bekaizkeriak dakar
irri-ondorio,
on egiñari gaizki
erantzuten dio.
Ijitoak aterpe
dutela Orio...?
Erri denak ez dute
ortako balio.

Orra nondik datorren
irriz diotena,
oriotarrak duten
ijito-izena.
Deltura orregatik
ez degu, ez, pena;
errudtzea bait da
txalogarriena.

Don Fabian Loidi

ASEGURUAK

C C L

CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

JUAN LOIDI AZKUE

Aritzaga, 3 -1 Telefonoa: 83 11 90 ORIO



ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
MIXTOA

SOLARIUMA
PERFUMERIA

San Nikolas, 2 Tínoa- 83 31 70

ELKARRIZKETA

Trikitilariak dira beste askoren antzera

Kolon-Txikiko mahaian Ainhoa aurreko aldean eta Asier eskubitara ditudalarik, "eta zu zein zara?" Asierrek egin didan galderari erantzun dottorea eman ondoren hasi da benetako elkarrizketa.

Marisa Arruabarrena

Karkara.- Gozategi anai-arrebak, noiz eta nola hasi zineten musikaren mundu hone-tan?

Asier.- Beno, fetxa bat ematekotan, 1980an hasi nintzen ni Zarautzen. Baina aitaren erria izan zen nolabait.

Ainhoa.- Bai, berari betidanik gustatu izan zaito trikitixa eta Zarautzen erakusten zutela jakin zuenean, bertara joan eta Martinekin harremanetan jarri zen. Berak geroago ikasiko zuela esanez Asier hasi zen.

K.- Eta zu Ainhoa, noiz hasi zinen?

Ainhoa.- Ni, handik bi urtetara edo. Bai, nere anaiarekin lehenbizi gure lehengusua hasi zen, Oihane Abaurrea. Ni orduan, ikusle edo entzule hutsa nintzen. Piskanaka neri ere gustatu zitzaizkidan eta hasi nintzen panderoa jotzen eta kantatzen.

K.- Beraz Asierrekin hasi zinen?

Ainhoa.- Ez, hasiera itxiak Ibarbiarekin izan zen Asteasuko txapelketan 1983an. Gero Zarauzko neska batekin, ondoren Azkonebietarekin eta azkenik Asierre-

kin. 1986aren inguruan hasi ginen elkarrekin.

K.- Eta zuen abestiak, nork asmatzen ditu?

Asier.- Gehienak abesti zaharrak dira. Batzuk nik asmatzen ditut, bai koplak eta bai do-

inuak ere. Lehen Jon Sarasuari eskatzen genion bertso batzuk asmatzeko baina azken boladan Ibai Esoaini.

K.- Eta txapelketen asunto hori nola doa?

Asier.- Bost bat txapelketetan hartu dugu parte. Bai, Zeaunurin, Euskadi Irratian...

K.- Eta, nola gertatu izan zarete?

Asier.- Bueno, Zeaunurin adibidez lehenak izan ginen, Euskadi Irratikoan bigarrenak... ah! eta Oihanekin ere behin irabazi genuen txapelketa bat.

Ainhoa.- Bai, eta inoiz ez gara azkenak izan.

K.- Ze desberdintasuna dago fandango, arin-arin, trikitixa eta

"Txapelketetan inoiz ez gara azkenak izan"



porrusaldaren artean?

Asier.- Fandangoari letra edo koplak jarritz gero trikitixa dugu, eta arin-arinari gauza bera egiten badiogu, porrusalde genuke.

K.- Kontuak horrela direla, zer egiten duzue gaur egun?

Ainhoa.- Ni bapo bizi naiz. "Informatica de Gestión" delakoa bukatzen ari naiz eta ikastolako haurrei panderoa erakusten dihardut. Hauen artean, zaraustar eta alarrak ere badaude. Bestalde, noizean behin trikitixa txapelketetara joaten gara eta arraun munduan ere hor nabili.

K.- Arraunketan ze maila daukate neskak?

Ainhoa.- Aurten inoiz baino neska gehiago gaude. Estropadetan neskak banko mobilen aritzen gara, baina fijo-tan oraindik ez.

Asier.- Ni batetik bestera ibiltzen naiz. Beti trikitixa erakusten, Gas-teizen, Naparroan, Orion... Aste guztia horrelaxe eta igandeetan "Geurtz 22" taldekoek entsaioa izaten dugu.



K.- Zer da "Geurtz 22" talde hori?

Asier.- Musika gustatzen zaigun lau mutil elkartu ginen eta

K.- Eta zu Asier?

Asier.- Ni gustora, musiko bezala biziko nintzateke. Orain bizi naizen moduan, batetik

Asier.- Neri gehien gustatzen zaidana trikitixa jotzea da. Futbiton ere ibiltzen naiz, eta parrandak egitea ere gustatzen zaigu. Bestalde "Xurumuru" taldekoa naiz eta hau benetan bultzatu nahi nuke.

K.- Zer esan nahi duzu horrekin?

Asier.- Nik uste dut Orion "beharra" dagoela. Orio bixitu egin behar dugu. Eta hori da hain zuzen ere Xurumuru taldekoek nahi duguna, gure herria benetan bizirik dagoela nabaritzea. Orion gazte asko dago eta benetan herri hau aurrrera atera nahi dugu.

Asier: "Ni gustora musiko bezala biziko nintzateke"

erromerietan eta ibiltzen gara.

K.- Eta etorkizunari begira, zer espero duzue.

Ainhoa.- Nik orain bezala jarraitu nahi dut. Beno, idazkari gisa lane-gitea ere nahi nuke.

bestera eta gauza asko eginez.

K.- Bukatzeko, zeintzuk dira zuen hobbyak?

Ainhoa.- Nereak arrauna eta trikitixa eta (irribarretxo batez) Ibon.

Kaixo Edaritegia

Ogitartekoak
eta pintxo bereziak

Tfnua: 13 07 73

LAIARI

izozkiak

Eusko Gudari, 42 Telefonoa: 13 42 64

**KAIA
JOLASAK**

DENETIK PISKA BAT

Zorionak

Xurumuru kultur taldeari

Igor Manterolaren omenaldia hain ondo antolatzeagatik. Hori adierazteko hona hemen Jon Sarasuak eta Ibai Esoainek botatako bertsoak:

Al zak, Jon Mala, ikusten al dek
nolako giro itzela?

"Veinteañera" piloa eta
"Quinceañera" tropela,
aitortu nahi dut antolakuntzaz
harrituta nagoela,
nik uste nuen hauek arraunen
besterik ez zekitela. (bis)

Jende guztia gustora dago
bestela ikusi, hara;
alde batetik parrea eta
bestaldetik algarra,
ekintza aldetik gure herria
oker bizi izan gara,
batna zuekin igo liteke
Orto azken puntara. (bis)

Zoriotxarrak

Orioko Kofradiari

Gaur egun, beste batzuk euskararen alde lanean jotake ari diren bitartean, ez delako oso ulergarria Orioko arrantzaleak bilera batera deitu behar Kofradiara, eta non eta noiz esaten zuen kartela, herriko tabernetan jarria, erdera hutsez jartzea.

Otsailean hildakoak

Jose Iribar Azkue, otsailak 4ean

Jose Agustin Lertxundi Makazaga, otsailak 20an

Isabel Urkizu Etxaleku, otsailak 20an

Josefa Ignacia Sarasua Aia, otsailak 21ean

Otsailean jaioetakoak

Beñat Carretero Lizaso, otsailak 4ean

Beñat Dorronsoro Iturzaeta, otsailak 5ean

Iñigo Gonzalez Torre, otsailak 19an

Josu Arruti Agirre, otsailak 25ean

Aurora Makazaga Urdangarin, otsailak 28an

Otsailean ezkontutakoak

Otsailean ez da inor ezkondu

ertza

USAINDEGIA

Egin zure
publizitatea
KarKara
aldizkarian

GURE TXOKO

TABERNA

ARITZAGA KALEA

SARASUA ERRETEGIA

Berezitasunak: -Arrai zopa
-Arrai eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29
83 00 05
Tfnak: 13 25 32

BORDATXO
Taberna

☎ 13 30 14

ERREZETA

Bakailoa pil-pilean (Katzina Erretegia)

Osagaiak (4 pertsonarentzat)

- Kilo bat bakailo
- Sei baratxuri ale
- Bi pipermin
- Olio lodia
- Perrejila

Egiteko modua:

Aldez aurretik baratxuriak oliotan frijitu eta doratzen hasten direnean atera eta olio horzutzen utzi.

Ontzian, bakailoak azalez gora jarri eta pipermina bertara bota. Ontzia sufian jarri eta olio piskanaka piskanaka boteaz joan, ontzian astintzen den bitartean saltsa lodi bat lortu arte.

Amaitzean, perrejil piska bat nahastu.

ORIOARTEKOari bidalitakoak

Oriotarren Kejak. Oriotarren edo oriotarren eskubideen defendatzailea lanpetuta dabil, oriotarren kejak gainezka eginda omen dago. Hona hemen berak publikatzeko pasa dizkigunak:

- Bat oso haserre agertu da kalean firmarik gabe zabaldu diren orri batzuren gatik. Orri horietan oso salaketa gogorrak egiten ziren alkatearen kontra, eta honen ustez, han esandakoak egiak baldin badira, salatu beste toki batean egin behar da, eta bere ondorio guztiekin, gezur hutsak baldin badira berriz, hori egin duenak ez du izenik.

- Beste batek bere keja Maddalen Iriarterengaino luzatu nahi du, ADOS izeneko ETBko mahai ingurura oriotarrik konbidatu ez zuelako, arrantzaz hitz egin behar zuten saiora, arrantzutzi bakarria duen Zumaiako alkatea konbidatu zuen bitartean.

- Asko dira Josetxo Fernandez Vaqueriza donostiarrak (Españako Arraun Federazioko Presidentea) oriotarroi traidore eta antzekoak deitu omen digula egin zioten elkarrizketa batean eta berarekin oso haserre agertu diren oriotarrak, espagnolazo, poltronazale eta antzekoak esaten dituztelarik.

Ijimoto

TXOMIN

ARRAINDEGIA

Eusko Gudari, 42

Tfnoa: 83 27 47

LIZASO

ALTZARIAK

Eusko Gudari, 46 ☎ 83 07 84

Alta Lertxundi, 6 ☎ 13 39 01

Marisko Biberoak

Telefona: 13 12 97

- Angulak
- Mariskoak
- Arrai finak

Ostalaritza Zerbitzua

Autoak aukera onean

AIA ORIO

Telefona: 13 04 38

DENETIK PISKA BAT



EZETZEZAGUTU! aurreko aleko irabazlea Itziar Albeniz izan da. Argazkian azaltzen da bere altonarekin Itsas-Onda jatetxearen aite ondoan. Zorionak!

Hemen dugu Itziarrek, bere altonaren laguntzaz idatzitako erantzuna:

- ✓ Fermin Iparragirre
- ✓ Antonio Iturzaeta
- ✓ Batista Oliden
- ✓ Juan Loidi
- ✓ Vicente Zaldua
- ✓ Gabriel Atorrasagasti
- ✓ Jose Maria Azkue
- ✓ Joaquín Arruabarrena
- ✓ Vicente Larrañaga
- ✓ Benjamin Sagarna

LIZASO

**ERLOJU eta
BITXI DENDA**

Kala, 5 Tfnoa: 83 10 90

**ITURAIN
okindegia**

Aritzaga ☎ 83 08 28

K2

AURRERA
disco-taberna
ORIO

ITZIAR

Kirolak

Eusko Gudari, 23 ☎ 83 31 03

ORIO


Izarra

Bideo-produkzioak
Hi-Fi TV Bideoak
LPak, CDak eta zintak

Izarra Atorrasagasti

Aritzaga kalea 5
Tfnoa: 83 38 81

**OLIDEN
HARATEGIA**

EUSKO GUDARI, 2

TFNOA 83 10 86

KONTU ZAHARRAK

Garai bateko garraioak(I)

Orain berrogeita hamar edo hirurogei urte, garraio kontu gehiena, trenez edo itsasoz egiten zen, bide luzerako bazen behintzat, gero inguruko banaketa bakarrik gelditzen zelarik kamioientzat.

Patxi Olliden

Ibai beste aldean, orain «Gureak» kokatua dagon etxe haundi hori, refraktario fabrika zen bere bi tximini haundirekin eta kamioi bakarren bat ezik, gainontzeko hartu emana, nahiz trenez edo itsasoz egiten zen gerotxo arte.

Trenbidea, kamioia zeharkatuz zihoan fabrika barruraino eta bertan egin ohi zuten bagoi kargatze edo hustutze lana, gero eskuz bultzadaka berriro kamioia zeharkatuz, karril nagusira edo aldamenekora ekarriaz. Noski, orain baino transito gutxiago zen kamioian.

Trenak

Trenak, gaur ez bezela, bi motatakoak ziren: batzuk gizon emakumeentzat eta beste batzuk «merkantzia trenak», hauek, izenak dion bezela, gaiak hara honera ibiltzeko.

Galak, bustigatik ardurarik gabekoak baziren, (noski hauen garraioa *merkeago*

izango zen), bagoi irildak ziren, esan nahi dut, estalki gabeak. Lehorrikibil beharrekoentzat berriz, estaliak. Bagoi hauek nola oraindik haizezko frenurik ez zeukaten, bi edo hiru bagoitatik behin, gizon bana joaten zen, aldapa beheara zegoen uneetan, esku frenoz, frena zezaten. Trenak, nahiko luzeak ziren.

Konturatuko zarete, negu garaian batik bat, guardafreno deitutako gizon hoek, nolako hotzak pasa behar izaten zituzten.

Geltokira iristean, tren tartean bagoi bat sartu edo atera behar bazen, karrilez aldatzen zuten eta bazter karrilera sartuz, trena eten eta tartean sartu edo kentzen zioten gero berriro elkar itsatsiaz. Bagoi tartean

zebiltzan gizonak, egin kontu, nolako arriskuan ibili behar zuten, gakoak kendu edo ezar lanetan. Ikustekoa izaten zen, geltokiko jefearen aginduz, (aho txiztuaz, futbol partiduko arbitro gisa), atzera eta aurrera, trena berriro osatu arte.

Trolebusak

Hiri haundietan, bertako ibilketarako, kaleak zeharkatuz, karrilak ziren tranbiantzako, eta gaur autobusak egiten duten lana, tranbian bitartez egin ohi zen; noski, karril bakoitzaren gainean, elektra kablea beharrezkoa zen, tranbia bakoitzak indarra izan zezan. Indar hau «trole» bitartez iristen zen barruko motorrerraino, goiko kabletik askotan

ateratzen zelarik, eta hau sartu bitartean tranbia indar ezak eragin da, geldirik egonaz.

Gerorago, karrilak kendu eta urte batzuetan trolebusak izan genituen Donosti barruan, Tolosaraino iristen zirela baita ere. Trolebus hau, autobus bat bezalaxe zen, tranbian burdinezko gurrpil ordezt, goma eta halzezko gurpilak zituela, baino ibil indarra, gasoil edo gasolina ordezt, goian, joan behar zuen bidean, tranbiarentzat kable bat bazen, honentzat bi kable behar izaten ziren.

Trolebus haiek, urte gutxi iraun zuten eta tranbia eta blek, autobusak irentzi zituen.

Tolosa bitarteko kamioian, urte askoz iraun zuten trolebusen kableek.



AZKENA



EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Gure asmoa lehiaketa honetan ahalik eta jende gehienari parte hartzeko aukera ematea denez, hementxe doakizue argazki polit hau. Oraingo honetan argazkian azaltzen diren **izen guztiak** eman behar dizkiguzue. Kontuz errepikatzen diren izen abizenekin!

Orain arte egin dugun bezala, afari bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean. Afaria **Itsas Ondo Jatetxean** izango da.

Erantzunak **apirilaren 22rako** bidali behar dizkiguzue. Gure helbidea, dakizuenetz, honako hau da:

KARKARA aldizkaria

Ezetz ezagutu! lehiaketa

Herriko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara)

ITSAS-ONDO

Bataloak, jaunartzeak, negozio eta talde bazkariak



Kaia kalea, 7
tfnoa: 13 11 79

PATXI
HARRATEGIA
Telefonoa: 83 18 37

URAITZ
LURRINDEGIA
KIROMASAI ESTHETICIEN
ENDAIA 3 TFNOA 83 18 97

**Antilla
Jatetxea**
Abeslari, 2
Tfnoa: 83 07 50

ORIOKO PROMOZIOAK I, s.l.
**2, 3 eta 4 gelatako etxebizitzak
merkatal lokalak eta garajeak**
kale,9 Tfnoa: 83 41 44 Orle 30810

**ERRUSTA
taberna**
Kriston bokadillok!!

MAPFRE, S. A. - Asegurak
TALAI, S. M. - Aholkulariak
TFNOA: 13 37 20 Eusko Gudari 44 A behea ORIO

Garmendia
aseguru-agentzia
83 44 66

KARKARA aldizkaria
jaso nahi dut etxean


Izen-deiturak: _____

Helbidea: _____

Herria: _____ Posta-kodea: _____

Telefonoa: _____

Gure aldizkariaren 1993ko hamar zenbakiak etxean debalde jaso nahi badituzu, bete ezazu txartel hau zure datuekin eta entrega ezazu Iturain liburudendan edo bota KARKARAREN buzoian (Udaletxe atzeko karkaran dagoen portalean). Besterik gabe, aldizkaria etxean jasoko duzu, doan, hilaren lehen ostiralean.



D. B. 83103
1989